


GAZTERIA, LANA ETA PREKARIETATEA

*gazte prekarietatearen argazki bat
eta borrokarako proposamena*





Txosten honen helburua Euskal Herriko gazteon prekarietate egoera aztertzea da, lan-merkatuaren egoeraren eta honek gazteongan dituen eraginetan zentratuz batez ere. Gazteok gure egunerokoan bizi dugun egoeraz hitz egin nahi dugu txostenean, egoera honen izaera eta ondorio kolektibo eta egiturazkoak aztertuz. Orokorrean modu indibidualizatuan aurre egiten diogun egoera baten dimentsio kolektiboa azalera nahi dugu.


Horretarako, lehenik eta behin, lan-baldintzen (eta ondorioz bizi-baldintzen) prekarizazioa ematen den testuinguruaren azterketa txiki bat egin dugu, ulertzeko gazteon lan-baldintzen prekarizazioa ez dela ahuntzaren gau erdiko eztula. Aitzitik, lan-baldintzen muturreko prekarizazioa sistema kapitalistaren berregokitzapenaren zutabe garrantzitsuenetako bat da, aberastasuna gutxi batzuen eskutan metatzen jarraitzeko langile klase osoaren lan- eta bizi-baldintzak okertzea ezinbestekoa duelako.

Bigarren atal batean, Euskal Herriko gazteon prekarietatearen argazkia osatu dugu bereziki lan-baldintzetan arreta jarriz, bizi dugun egoera zehatzago ezaugarritzeko asmoz. Jakin badakigu datu eta estatistika ofizialak errealitatea ezkutatzeko edo desitxuratzeko sistemaren tresna direla, hala ere eta honen jakitun, hemen bildu ditugun datuen bidez argazki osoago bat izatea dugu helburu, egunerokoan nozitzen dugun egoera pixka bat zehatzago ezagutzeko.

Hala ere, eta lurraldetasunari dagokionez hainbat aipamen egin nahi ditugu. Ez dira asko Euskal Herriko zazpi lurraldeak kontuan hartuta gazteon egoera ekonomikoari buruz egiten azterketak, gure herriaren errealitate instituzional zatitua dela eta, eta honek Euskal Herri osoko ikuspegia duen lan bat egitea zailtzen du. Era berean, Ipar Euskal Herriari dagokionez, egitura insituzional-administratibo propiorik ez izateak datuak eskuratzeko muga nabariak dakartza. Hori horrela, eta txostenak lanerako eta praktikarako tresna bat izan nahi duen heinean, Hego Euskal Herriko errealitatea aztertu dugu nagusiki. Hala ere, aurrera begira Euskal Herri osoa aintzat duen ikuspegia eskuratzeko bidean lan egiten jarraitzeari ezinbesteko deritzogu.


Azkenik, gazteon prekarietatearen aurka borrokatzearen beharraz eta garrantziaz arituko gara bereziki lanaren eremuan. Jakin badakigu gazteok pairatzen dugun esplotazioa eta prekarietatea gainditzeko kapitalismoa suntsitu behar dela, eta horretarako hainbat esparrutik ekitea dagokigula. Lan honek lanari, eta bereziki soldatapeko lanari, erreparatzen dio gazteon bizitzetan duen zentralitateagatik, eta sozialismoaren eraikuntzan berebiziko garrantzia duelako langile kontraboterea gazte mailan eta gazte mailatik artikulatzea.

Bere txikitasunean, txosten honek argazki bat egitetik harago lanerako eta borrokarako tresna bat izan nahi du. Espero dugu lan xume hau euskal gazteriarentzat tresna baliogarria izatea, antolatu, saretu eta borrokatzeko, eguneroko borroka baino ez dugulako lortuko egoera hau iraultzea. **Gazteon oraina borrokan da!**



AURKIBIDEA

1. LAN-BALDINTZA PREKARIOETATIK, GURE BIZITZAREN PREKARIZAZIORA	7
1.1 PREKARIETATEA: KAPITALISMOAREN ARO BERRIAREN ELEMENTU ZENTRALA	
1.2 GAZTEON LAN-BALDINTZEN PREKARIZAZIOA, PREKARIZAZIO ESTRATEGIA OSO BATEN ZUTABE	8
2. GAZTE PREKARIETATEAREN ARGAZKIA EUSKAL HERRIAN: LAN BALDINTZAK AZTERGAI	9
2.1 GAZTEOK ETA LAN MERKATUA	10
2.2 GAZTEON LANGABEZIA	11
2.3 ENPLEGUAK ERE PREKARIETATEA DAKAR	12
2.3.1 SOLDATAK	14
2.4 LAN MERKATU BELTZA ETA EZKUTUKO LANAK	16
2.5 SHARING ECONOMY ETA PREKARIETATE FORMA BERRIAK	17
2.6 HEZKUNTZA ETA LAN MERKATUA	18
2.6.1 PRAKTIKA KONTRATUAK ETA FORMAZIO KONTRATUAK	20
2.7 ENPLEGU PLAN PUBLIKOAK	21
2.8 PREKARIETATEAREN ONDORIOAK ETA POBREZIA	22
2.8.1 GAZTEON POBREZIA	
2.8.2 ETXEBIZITZA LUXU BILAKATZEN	
2.8.3 GAZTE MIGRAZIOA AZTERTUZ	23
3. GAZTE PREKARIETATEAREN AURKA BORROKAN	24
3.1 PREKARIETATEAREN AURKA, GAZTEON ARTEKO ELKARTASUN ETA ELKARLANGUNTZA SAREAK EHUNDUZ	27
3.2 GAZTE ETA LANGILE, ZUBIAK ERAIKIZ, ALIANTZETAN SAKONDUZ	
4. PREKARIETATEAREN AURKA, HAINBAT ALDARRIKAPEN	27
4.1 LAN DUINA GUZTIONTZAT	28
4.1.1 BELTZEAN ETA AITORTZARIK GABE GABILTZAN GAZTEOK ERE ESKUBIDEAK DITUGU!	29
4.1.2 LANGABEZIA ETA POBREZIAREN HANDITZEARI ERANTZUTEKO PRESTAZIO SOZIALAK HANDITZEA	
4.1.3 ENPLEGU POLITIKA PUBLIKOEI KRITIKA	
4.2 PRAKTIKALDIAK ETA PRESTAKUNTZA KONTRATUAK	30
4.2.1 PRAKTIKALDIAK IKASTEKO	
4.2.2 PRESTAKUNTZA KONTRATUAK	
4.3 BEHARTURIKO EMIGRAZIORIK EZ!	31
4.4 ESKUBIDE SOZIALAK BERMATU	32
4.5 HEMEN LAN EGIN, HEMEN ERABAKI	



1. LAN-BALDINTZA PREKARIOETATIK, GURE BIZITZAREN PREKARIZAZIORA

Azken urteetan kapitalismo neoliberalaren ofentsiba baten erdian aurkitzen gara, gutxi batzuen mesedetarako sistema batean sakonduz, klase eta jendarte sektore zapalduok eremu guztietan prekarizatuz horretarako. Ofentsiba neoliberalak zapalkuntza eta esplotazioa maila guztietan areagotzea du helburu, prekarietatea sistematizazuz eta iraunkortuz. Prekarietateaz hitz egiten dugunean egonkortasun eta segurtasun faltaz ari gara, gure bizitzako eremu guztietan. Gure bizi-proiektua ahalbidetzen duten behar material eta sozialak asetzeko ezintasunaz ari gara.

1.1 PREKARIETATEA: KAPITALISMOAREN ARO BERRIAREN ELEMENTU ZENTRALA

Azken urteetako balizko “krisiaren” eskutik kapitalaren ofentsiba berri bat dator, ezaugarri propioak dituena, ezaugarri zentrala prekarietatea delarik, eta klase eta jendarte sektoreen desjabetzean sakontzea. Prekarietatea kapitalismoaren elementu egiturazkoa izan da beti, ondo dakigu gazteok hori, nahiz eta Ongizate Estatuaren paradigmapean errealitate hori “halabeharrezkoa errealitate neurtu bat” dela sinestarazi nahi izan diguten, etorkizun hobe batera bidean ibili beharreko bide gogorraren adierazle.

Ofentsiba neoliberalaren ondorioz, prekarizazioa “bazterrekoa” eta “neurtua” izatetik esplotazio eta dominazio sistemaren ezaugarri nagusia bilakatzen ari da. Prekarizazio estrategia hau, hazkunde ekonomikoaren enborra bilakatu nahi dute, eta gainera klase dominanteak gure bizitzak gobernatzeko tresna eraginkorra ere bilakatu nahi dute. Prekarizazio prozesu orokor honek gure bizi-proiektua garatzeko baldintza materialetan zuzenean eragiten du, baina baita orain arte ezagutu dugun jendarte ereduarengan ere, oso barneratuak ditugun bizi-ereduak eta aspirazioak hankaz gora jarriz.

Prekarizazioan oinarritutako estrategia neoliberalak bi zutabe nagusi ditu. Batetik babes sozialerako sistema publikoen desegitea merkatuari eremu berriak irekitzeko (pentsioak, osasun sistema, hezkuntza...), eta bestetik lan balditzen prekarizazioa eta lan eskubideen deuseztapena. Horrela, eskubide sozial eta laboralik gabeko belaunaldi bat izatera kondenatu nahi gaituzte. Ongizate Estatuaren paradigma kapitalistaren pean, sinestarazi ziguten enpleguaren bidez merkatuan parte hartzeko gaitasuna eskuratuko genuela, eta horren bidez gure bizitzak-sostengatzeko bermeak izango genituela. Jakin badakigu hau ez dela horrela inondik inora, baina paradigma horrek gure bizi-proiektuak enpleguaren inguruan ardaztera bultzatzen gaitu gazteok. Ofentsiba neoliberalaren ondorioz baina, lanak bizi-baldintza jakin batzuk bermatzeko betetzen omen zuen papera, ez du inondik inora betetzen edo beteko. Honek, bizi-prekarietatera modu orokortuan kondenatzen gaitu gazteok bereziki.

Prekarizazio prozesu honek eragindako ondorioak oso anitzak dira, baina orokorrean modu indibidualizatuan eta ezkutukoan sufritzen ditugu egunerokoan. Iruditegi kolektiboan pobrezia eta prekarietateari ezartzen diogun estigmak, asko zailtzen du prekarietateari buruz lehen pertsonan aritzea (“ni ez naiz pobrea, ni ez naiz prekarioa”, beste batzuk dira... ukatu gabe, badaudela talde sozialak prekarizazioa modu muturrekoagoan pairatzen dutenak, emakumeak edo migranteak esaterako), eta honek elkar-aitortzetik subjektu kolektiboa artikulatzeko zailtasunak dakartza, baita lan- eta bizi-baldintza hauetan eragiteko anbizioz antolatzeke ere.

Hau estu lotuta dago oso barneratua daukagun norbanako autosufizientearen iruditegiarekin, zeinaren estatus soziala merkatuan duen posizio sozialaren eta parte hartzearen arabera neurtu eta baloratzen den. Horrek, gizarte-dinamika kontsumista baten baitan, kontsumo-mailaren ondoriozko auto-pertzepzioaren arabera taldekatze soziala bultzatzen du, produkzio prozesuan dugun posizioaren arabera beharrea (klasea).

1.2 GAZTEON LAN-BALDINTZEN PREKARIZAZIOA, PREKARIZAZIO ESTRATEGIA OSO BATEN ZUTABE

Sistema kapitalistak soldatapeko lana mitifikatu du inklusio sozialerako elementu nagusi eta ia bakar bezala, horren arabera subjektibitateak eta harreman-sozialak eraikiz. Ikuspegi honek bizitzaren-mantenuko eta inklusio-sozialerako beharrezkoak diren beste hainbat zeregin ezkututzen ditu, agerian uzten dutenak, soldatapeko lana bere horretan ez dela nahikoa. Are gutxiago lan-baldintzen prekarizazio prozesu baten erdian, non soldatapeko lana ez den pobreziatik ihes egiteko berme nahikoa.

Hala ere, eta gure bizitzetan soldatapeko lanak duen eta izan beharko lukeen pisuari buruzko eztabaidaz harago, onartu behar dugu egun gazteon gehiengoaren bizi-proiektuan eragin determinantea dutela lanak orokorrean, eta enpleguak ere. Egungo lan merkatuaren konfigurazioak gazteok zaurgarritasun egoera larrian kokatzen gaitu, lan-merkatuan parte hartzeko zailtasun handiak eta lan-baldintza prekarioak direla eta.

Gazteon lan-baldintzen ezaugarri nagusiak dira aitortzarik gabeko lana, enplegu-tasa txikia, eta muturreko baldintza prekarioak. Ezaugarri hauek egun duten eragina lazgarria da, eta gazteok gure bizi-proiektua garatzeko dugun ezintasunetan du isla nagusia, baina epe ertainean izango duten eragina ere lazgarria izango da. Izan ere, prekarietate gero eta muturrekoagoa eta ez da egoera trantsitorio bat, baizik eta langile klase osoaren esplotazio eta disziplinamenduan sakontzeko estrategia sistematikoa bat. Burgesiarentzat gazteon lan-indarra esplotatzea errentagarriagoa da. Alde batetik, gure gain beste pertsona batzuen bizitzaren mantenua (normalean) ez edukitzeagatik soladata baxuagoak ordaindu ahal dizkigute, edo “oraindik formatzen ari garenez eta esperientzia falta dugunez” praktika kontratuen pilaketarekin prekarietatera kateatu, diru apur bat lortzeko beltzean eta eskubiderik gabe egiten dugun lanaz jabetu... horrela,

hainbat lanpostu gazteok betetzen ditugu, baldintza are prekarioagotan, burgesia gure prekarietatearen kontura gehiago aberasten delarik. Lan-merkatuan lehen urratsak prekarietate gordinenean emateak gainera, gazteok lan-baldintza horiek berezkoak balira bezala ulertzea dakar, langile sumisoagoak bilakatu nahi gaituztelarik horrela.

Bestalde, hamarkadatarako langile-borrokaren eskutik etorri dira egun ditugun lan-eskubideak. Egungo gazteok ez genituen garaipen horiek lehen eskutik bizi izan, eta beraz, moduren baten uzta jaso badugu ere, langile antolakuntzaren eta klase elkartasunaren kultura hori ez dugu jaso; horri gehitu behar zaio urtetan neoliberalismoak langile antolakuntzaren aurka buruturiko borroka ideologiko bortitza. Egoera honek, langileon eskubide kolektiboak ezabatzeko eta lan-baldintzak prekarizatzeko erasoaldi neoliberalaren erdian umezurtz sentiarazten gaitu gazteok sarritan.

2. GAZTE PREKARIETATEAREN ARGAZKIA EUSKAL HERRIAN: LAN BALDINTZAK AZTERGAI

Atal honetan Euskal Herriko gazteon prekarietate egoera aztertzen da, lan-merkatuaren egoeran eta honek gazteongan duen eraginean arreta jarriz bereziki. Sarreran aipatu dugun bezala, arreta Hego Euskal Herriko argazkian jarri dugu, errealitate instituzionalizatituaren ondoriozko zailtasunak direla eta. Esan bezala, bertan jasotzen diren datuak gazteon prekarietatearen argazki osoago bat izateko balio dezaketelakoan bildu ditugu hemen. Era berean, neska gazteok pairatzen dugu bazterketa sistematikoaren azterketa egiteko zailtasunak ere aipatu nahi ditugu, iturriak oso urriak baitira, eta erreparatzen zaion kasuetan datu batzuetara mugatzen da, ezkutuan geratzen den horretan sakondu gabe. Hau ere, aurrerantzean sakontzeko bide bat dela deritzogu.

Datu guztiak iturri ofizialetatik jaso ditugu. Sistemari ez zaio interesatzen errealitatea agerian geratzea, eta beraz, ez dugu ahaztu behar neurgailu eta adierazleak honen beharretara diseinatuta daudela, eta datuen helburua sistemaren argazki distortsionatu bat erakustea dela. Beraz, ematen dizkiguten datuen aurrean begirada zorroztea ezinbestekoa zaigu, datuetan baino, hauek atzean dute errealitatean arretan jartzeo ahalegina eginez. Hori dela eta, argazkiarekin hasi aurretik hainbat definizio eta argipen egin nahiko genituzke.

Txosten hau burutzeko hainbat iturri baliatu ditugu. Iturri nagusietako bat “Encuesta de Población Activa” delakoa da, EPA, eta gazteon erreferentziazko adin tarte bezala 16 eta 34 urteren arteko adin tarte hartzen da. EPA inkestak 16 urtetik gorako pertsonak hiru kategoriatan bereizten ditu lan-merkatuarekin duten harremanaren arabera.

- **Pertsona okupatua edo enlpeguduna** deritzo erreferentziazko astean (elkarrizketa burutu aurreko astea) soldata baten edo bestelako ordainsari baten truke gutxienez ordu bat lan egin duen pertsonari.

- **Langabetua**k liratezke 16 urtetik gorako soldatapeko lanik gabeko

pertsonak, enplegua aktiboki bilatzen ahalegindu direnak eta gainera enplegu baten hasteko prest daudenak elkarrizketa burutu ondorengo bi asteetan.

Aurreko bi taldeek, pertsona aktiboen taldea osatzen dute.

- **Ekonomikoki ez-aktiboak** dira 16 urtetik gorako pertsonak, pertsonak okupatuak edo langabetuak ez direnak. Hau da, soldatapeko lanik ez duten eta aktiboki bilatzen ari ez diren pertsonak.

Adierazle horiek egoera kontrajarriei erreferentzia egiten dietela ematen badu ere, argi dago bataren eta bestearen arteko marra benetan mehea dela. Esaterako, okupatutako pertsona baten eta langabetu baten arteko ezberdintasuna izan daiteke erreferentziazko astean ordu bakarra lan egin izana. Beraz, adierazle honek prekariedade egoera larriak ezkututzen ditu. Gainera, aurrerago ikusiko dugunez, enplegua izateak ez du esan nahi bestelako lanik egin behar ez dugunik pobreziatik ihes egiteko, hau sarritan inon jasotzen ez delarik.


Era berean, langabetuen eta ekonomikoki ez-aktiboen arteko marra ere ez da horren egonkorra, eta enplegua aurkitzeko espektatibekin zuzenean erlazionatuta dago. Izan ere, asko dira espektatiben zapuzte honen ondorioz enplegu bilaketa aktiboa albo batera uzten dutenak, eta horrela ezkutuko langabezia bat sortzen da, datu ofizialetan neurtzen ez dena. Ekonomikoki ez-aktiboetan sartzen gara kontraturik gabe lan egiten dugunok, ezkutuko lanetan aritzen garenok, ikasleok, lan bila modu “ez-aktiboan” gaudenok... eta beraz, lan gabeziak enplegu bila modu “aktiboan” gauden gazteok baino ez gaituzte aintzat hartzen, errealitatea distortsionatuz. “ez-aktiboak” garen gazteok ere aitortzarik gabeko baina balio-soziala duen lan asko egiten dugu!balira bezala ulertzea dakar, langile sumisoagoak bilakatu nahi gaituztelarik horrela.

Bestalde, hamarkadako langile-borrokaren eskutik etorri dira egun ditugun lan-eskubideak. Egungo gazteok ez genituen garaipen horiek lehen eskutik bizi izan, eta beraz, moduren baten uzta jaso badugu ere, langile antolakuntzaren eta klase elkartasunaren kultura hori ez dugu jaso; horri gehitu behar zaio urtetan neoliberalismoak langile antolakuntzaren aurka buruturiko borroka ideologiko bortitza. Egoera honek, langileon eskubide kolektiboak ezabatzeko eta lan-baldintzak prekarizatzeko erasoaldi neoliberalaren erdian umezurtz sentiarazten gaitu gazteok sarritan.

2.1 GAZTEOK ETA LAN MERKATUA

Azken urteetan “ekonomikoki aktiboak” diren gazteen tasa jaitsi egin da. Hau lotuta dago Hego Euskal Herrian eman den 16 eta 34 urte arteko popiuzazioaren jatisierarekin, 2007 urtetik 2017ra %27 murriztu delarik (hau da, Hego Euskal Herrian gero eta gazte gutxiago daude). Aldagai demografikoa baliatuz bakarrik baina, ezin da azaldu “ekonomikoki aktiboa” den adin tarte horretako gazteen tasaren jaitsiera, izan ere, azken hau askoz ere handiagoa izan da, baita enplegu-tasaren jaitsiera ere. 2007tik

2017ra “ekonomikoki aktiboa” den 16 eta 34 urte arteko gazteria (enpleguduna edo langabezian) %36,8 murriztu da. Adin tarte horretako gazteon enplegu-tasa aldiz, askoz ere bortitzagoa izan da: denora tarte horretan gazteok betetzen genituen enpleguen %43 desagertu da, hau da, 200.000 lanpostu inguru.



Datuek esaten dutenaren arabera, 2014 urtean hasi zen Hego Euskal Herrian enplegu-tasa berriro hazten, okupazio datu netoei erreparatzen badiegu. Hala ere, aztertu beharrekoa da zein baldintzatan sortu diren enplegu berri horiek: soldatak, lan-baldintzak, lan-eskubideak... Hala ere, gazteon enplegu-tasaren egoerak ez du joera orokorrekina bat egiten. Honetan 16 eta 34 urte bitarteko populazioaren murrizketak eragina izan badezake ere, bestelako faktoreek eragin nabaria dute aurretik ikusi dugun bezala. Lan-merkatuan gazteok gure lan indarra saltzeko ezintasunak enplegua bilatzeko lanak albo batera uztea eragiten du gazteon artean (paro desanimado), emigratzeko hautua edota ikasketetara bueltatzeko hautua indartuz. Honi gehitu behar diogu beltzean lan egiten dugun gazte kopuru handia.


2.2 GAZTEON LANGABEZIA

Azken urteetan “ekonomikoki aktiboak” diren gazteen tasa jaitsi egin da. Hau lotuta Sarreran aipatu bezala langabezia tasaren azterketa hutsak errealitatea distortsionatu dezake (gazteria “ekonomikoki ez-aktiboarekiko” eta enplegudun gazteekiko muga oso lausoa izan daitekelako). Hala ere, egoera orokorra eta joerak kualitatiboki aztertzeke balio dezake, kuantitatiboki gazte masa bat barne hartzen ez den arren.

Hego Euskal Herrian 16 eta 34 urte arteko gazteon langabezia-tasak behera egin du 2013tik 2017ra %26,7tik %17,6ra; hala ere, 2007 urteko langabezi-tasaren bikoitza da oraindik ere (2007an %8,4koa zen). Enplegu-tasari erreparatuz gero, 2014 eta 2017 urteen artean igoera oso txikia izan da, %49,6tik %52,4ra. Oraindik orain, 2007ko %67,3ko enplegu-tasatik urrun dagoelarik.

25 urtetik beherako gazteak gara bereziki langabezi-tasaren igoera pairatu dugunak, 2017 urtean %28,5koa izan zelarik. Inguruko herrialdeekin alderatuz, adin honetarako langabezia-tasa altuagoa duen eremu geografiko bakarra estatu Espainola da %38,6ko langabezia-tasarekin. Europar Batasuneko herrialdeen batz bestekoa %16,8koa da.

Jarraian agertzen den taulan 16 eta 25 urte arteko Hego Euskal Herriko gazteen egoera laboralari loturiko datuak agertzen dira, 2017 urtekoak.



	JARDUERA-TASA	ENPLEGU-TASA	LANGABEZIA-TASA
GUZTIAK	%32,9	%23,6	%28,5
MUTILAK	%35,2	%26,2	%25,5
NESKAK	%30,6	%20,8	%32,0

2.3 ENPLEGUAK ERE PREKARIETATEA DAKAR

Kapitalaren ofentsiba neoliberalak herritarron probretze orokorra bihurtu du bere biziraupenerako estrategia, eta horretarako ezinbesteko pieza da soldatapeko lanaren prekarizazioa. Euskal gazteok, soldatapeko lanean egonda ere, ez diogu prekarietateari ihes egiten, lan baldintza prekarioak pairatzen ditugu: gehiegizko errotazioa, lan-kontratu partzialak, kontraturik gabeko soldatapeko lanetan aritzea, prebentzio neurri eskasak eta lan-istripuei esposizio handia, soldata baxuak... Gainera, krisi ekonomikoak eta Estatuetakoko gobernutik inposaturiko lan erreformek explotazio egoera honen gogortzea ekarri dute.


Enplegu prekarioaren ezaugarri nagusia, bakarra ez den arren, harreman-laboraletan segurtasunik eza da. Honek enplegua galtzeko arrisku handiagoa edukitzea esan nahi du, eta egoera horrek eraginda bizitzaren mantentzeko egun beharrezkoak diren diru-sarrerak modu egonkorrean mentetzeko zailtasunak, zein ezintasun horren ondoriozko beldurrak.

Lan-baldintza prekarioak arazo estrukturala dira, eta hauen inposizioa sistematikoa da. Honek bi funtzio nagusi betetzen ditu: alde batetik, lan-eskubideak murrizteko eta lan-baldintzen flexibilizaziorako irabaziak handitu asmoz; bestetik, langile klase osoaren disziplinamendurako estrategia bezala.

Aurretik aipatu dugu enplegu-tasaren jaitsiera gelditu dela 2014 urtetik hona, baina datu hori aztertzeko beharrezko zela sortutako enplegu mota aztertzea. 2007 urteko sistema kapitalistaren krisiaren ondoren, kapital metaketa ziklo berri bati ekiteko asmoz aldi-baterako kontratazioaren eta lanaldi partzialen gorakada eman da. Enplegu mota hauek askoz ezegonkorragoak dira, lan-baldintza txarragoei loturik egoten dira soldata baxuagoei.

- **Aldi baterako kontratuen gorakada ikaragarria** izan da, ezegonkortasuna eta segurtasun eza areagotiz.

2017an EAEn 16 eta 29 urte arteko soldatapeko gazteen %57ak aldi baterako kontratua geneukan, 2009tik ia 16 puntu igo delarik; Kontratuaren iraupenari dagokionez, aldi baterako kontratuen %20,5ak baino ez zuten urte bat baino gehiagoko iraupena izan 2017 urteko lehen lauhilekoan. 30 eta 34 urte arteko gazteen kasuan, aldi baterako kontratuen artean %30,9ak lau hilabetetik urte baterako iraupena zuten, %34,1ak aldiz iraupen ezezaguna zuten, baina hilabete bat baino gehiagokoa.



Nafarroan aldiz 25 urtetik beherako soldatapeko gazteen %65,7k aldi baterako kontratua izan genuen, hau da, hiru gaztetik bik; Kontratuaren iraupenari dagokionez, ez dauzkagu datu guztiak eskuragarri, baina CJE-ren arabera (Consejo de la Juventud de España) 16 eta 29 urte arteko gazteen aldi baterako kontratuen %31,6ak 4 hilabetetik urte baterako iraupena izan zuten 2017ko lehe hiruhilekoan, eta %30,6ak ez zekien iraupena zenbatekoa izango zen (hilabete bat baino gehiago izango zela soilik).

- **Lan aldi partzialak ere gora egin du**, kasu gehienetan behartua delarik. 2007 urtean Hego Euskal Herrian lanaldi partizalerako kontratuak okupaturiko populazioaren %14a ziren; 2017an aldiz, %17a ziren, emakumeon kasuan aldiz %28a.

Gazteoi dagokionez, igoera hau nabarmenagoa izan da. Nafarroan 25 urtetik beherako enplegudun gazteen %34,3ak lanaldi partzialeko enplegua dauka NASTATen¹ arabera. 16 eta 34 urte arteko kolektiboari erreparatuz gero lanaldi partzialeko enpleguak %21,5 dira. Adin tartea zabaldu ahala beheraka egiten du tasa honek, izan ere belaundaldi

gazteagoen artean ohikoagoak dira lanaldi partzialak, sarri ikasketekin uztartzeko helburuarekin. EAEn kasuan 16 eta 29 urte arteko enplegudun gazteen %30,7ak lanaldi partzialeko enplegua zeukan 2015 urtean, 2007 urtean %8,3 izan zelarik. Beraz, nabarmen egin du gora.

Gainera, aipatzeko da gehienetan gogoz kontra ari garela lanaldi partzialetan. Nafarroako daturik aurkitu ez dugun arren, EAEn kasuan 2015an lanaldi partzialean ari ziren gazteen %62,6 lanaldi partzialean zebiltzan lanaldio osoko enplegurik aurkitu ez zutelako, %3,8 familia-betebeharrek bultzatuta ari ziren (emakumeen kasuan %5,1, gizonezkoen kasuan %1,3), eta %3,1 enpresek ezarritako ordu-murrizketa edo ERE baten sartuta egoteagatik. Lanaldi partziala zuten gazteen %17,2 baino ez zen ari lanaldi partzialean hala nahi zuelako.

Aipatzekoa da ere *minijob* delakoek dakarten prekarietatea. Enplegu hauek lanaldi oso laburrak jasotzen dituzte kontratuetan, baina nagusiari lan aldia luzatzeko aukera ematen diote ordu extremen bidez. Honela, lanaldi laburreko kontratuarekin lanaldi osoan beste lan ordu egin daitezke baina lanaldi laburreko kopurua kotizatuz.



2.3.1 SOLDATAK

Aurretik aipatu bezala, lan-merkatuan parte hartzeko zailtasunak eta kontatazio motak eragin zuzena daukate gazteon prekarietate egoeran. Horretaz gain, gure bizi-baldintza materialetan modu determinanetean eragiten duen soldata ezin dugu aztertu gabe utzi. Soldatak, gure lan indarraren truke ematen diguten diru kantutateaz harago, harreman sozialen nolakotasuna determinatzen du.

Soldata aztertzerakoan urteko batz besteko soldata aztertuko dugu, baina hainbat kontu izan behar ditugu kotnua neurgailu honi dagokionez. Lehenik eta behin, aipatzeko da, soldataren balio monetarioak bere horretan aztertzeak muga nabariak dituela, eta beraz, honek nolako bizi-baldintzak ahalbidetzen dituen aztertu behar dela. Kontzeptu honek barne hartzen ditu ordainsari guztiak (oinarrizko soladatak, gehigarriak, aparteko ordainsariak, ordu extrak...) eta termino gordinetan konputatzen da, hau da, gizarte segurantzari kuotak eta zerga ezberdinak kendu aurretik. Jarraian erabiliko ditugun datuak 2015 urtekoak dira eta Egiitura Salarialaren Urteroko Inkertatik atera ditugu. Inkesta honek sektore industrialak, eraikuntzarena eta zerbitzuena hartzen ditu kontuan, baina zerbitzu domestikoak izan ezik. Horrela, bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren hainbat lan ikusezin bilakatzen dira, lan hauen balio soziala ezkutatuz, eta lan horiek burutzen dituzten pertsonak are gehiago baztertuz. Emakumeak garelarik orokorrean lan hauen burutzen ditugunak.

Horretaz gain, "urteko batz besteko soldata" kontzeptuak lanaldi osoko eta partzialeko enpleguak hartzen ditu kontuan. Argi dago soldatak lanaldi motak baldintzaturik daudela, eta beraz, lanaldi motaren banaketa ezinbestean kontuan hartu behar da datu hauek aztertzeko.

Azkenik, aipatzea ere, badaudela urte osoan zehar lan egin ez duten pertsonak (aldi-baterako kontratazioen gorakadarekin gero eta gehiago direnak), pertsona hauen kasuan ordea, urte osoa lan eginda jasoko luketen soldata baliokidea hartzen da kontuan, nahiz eta soldata hori jasotzen ez duten. Honek gazteon egoera makillatzen eta leuntzen du, aldi-baterako kontratuak pilatzen ditugun heinean.



Behin argipen batzuk eginda, datuei erreparatuta bi ondorio nagusi atera ahal ditugu:

- Adinean aurrera egin ahala soldatek ere gora egiten dute (55 urtetik gorakoen tartean izan ezik), metaturiko esperientziaren eta antiguetatearen ondorioz nagusiki. Beraz, gazteoi formakuntza pilaturiko lan-esku kualifikatua egozten zaigu (fomazioa ahalegin handiak egitera behartuz), baina "esperientzia faltaren" izenean lan-esku kualifikatu horren balioa debalatueta izan da, horren izenean soldata baxuagoak jasotzeko prest egon beharko ginatkeela zabalduz diskurtso dominanteetan, esperientzia jaso dezagun.

Gainera, orokorrean gazteok izaten gara "erreserbako ejerzitua" lan postu prekarioak eta ladi-baterakoak betetzeko, kapitalak hala behar duenean, orokorrean produktibitate baxuko sektoreetan eta soldata baxurekin.

- Oro har, urteko batz besteko soldatak gora egin duen arren, gazteon

urteko batz besteko soldatak behera egin du Hego Euskal Herrian. Honek harreman zuzena dauka lanaldi partzialeko kontratazioarekin batetik, eta gure lan-indarraren devaluazioarekin bestetik, horrela honen esplotazioan sakonduz.

Nafarroan 2008 eta 2015 urteen artean urteko soldata %6,5 hazi zen termino nominaletan (inflazioa kendu gabe). Kontrara, 25 urtetik beherako gazteon artean soldatek (termino nominaletan) %12,7 egin zuten behera, eta 25 eta 34 urte arteko gazteon kasuan %7,9.

EAEen denbora tarte berdinean urteko soldatez batz besteko %7,9ko igoera izan zuten termino nominaletan; baina 25 urtetik beherako gazteon soldata nominalek %21 egin zuten behera, eta 25 eta 34 urte arteko gazteon kasuan antzeko balioetan mantendu dira (igoera oso txiki batekin, %0,9).

Soldaten devaluazio hau lan erreformen testuinguru baten eman izanak, zeinak eragin zuzena daukan negoziazio kolektiboaren eta lan-hitzarmenen eremuan, adierazten du devaluazio koiuntural bat baino, egiturazko aldaketa baten baitan kokatzen dela gazteon soldaten devaluazioa, langile klase osoaren posizioak ahuldu asmoz.

Horrela, Hego Euskal Herrian batz besteko soldata gordina 26.965€-koa izan zen 2015 urtean, hau da, 1.926€ 14 pagatan (gotdina). Gazteon kasuan aldiz, egoera bestelakoa da. 25 urtetik beherako gazteon kasuan batz besteko soldata gordina 14 pagatan 895€-koa izan zen, %53,5 txikiagoa. 25 eta 34 urte arteko gazteon kasuan, batz besteko soldata gordina 14 pagatan 1.570€-koa izan zen, %18,5 txikiagoa.

Neska eta mutil gazteon soldaten arteko aldeari dagokionez, 25 urtetik beherako gazteon kasuan ezin izan dugu daturik eskuratu, baina 25 eta 34 urte arteko gazteon kasuan Nafarroan mutilek neskek baino %29 gehiago irabazi zuten batz beste 2015ean, EAEren kasuan aldiz, %24 gehiago.

Soldata baxuek, bizi-proiektu propioa garatzen hastea ia ezinezko bihurtzen dute gazteontzat, eta horrek, familiekiko menpekotasun egoerak sortu ahal dizkigute, edota muturreko esplotazioa onartzeko prest egotea menpekotasun hori atzean uzteko nahiak edo beharrak bultzatuta. Neska gazteon kasuan, soldatak baxuagoak izanik, egoera hau are larriagoa da.

2.4 LAN MERKATU BELTZA ETA EZKUTUKO LANAK

Nahiz eta honen inguran datuak ez diren existitzen edo oso urriak diiren, beltzean (kontraturik gabe) lan egiten duen gazte kopurua ezin dugu alde batera utzi: tabernetan, dendetan... Lan hauetan aritzen gara bereziki lan-merkatuan enplegurik aurkitzen ez dugun gazteak, enplegua izan arren diru sarrera osagarrien beharragatik jarduten dugunak beltzean, edota gurasoei kargak arintzeko diru-sarrera propioak eskuratzeko

lan egiten dugun ikasleetako asko, besteak beste. Kontuan izanik 16 eta 34 urte arteko gazteen enplegu-tasa %23,6 dela eta jarduera-tasa %32,9, eta enplegua izateak ez duela esan nahi bestelako lanik egitera beharturik ez gaudenik diru-sarrera gehigarrien bila, argi dago, gazte kopuru oso handi bati buruz hitz egiten gabiltzala.

Kontraturik gabeko lana izanagatik ere, lan honek ondasunak eta zerbitzuak produzitzen ditu, noski. Hala ere, lan hauek ez dira inon kontabilitzatzen, ez zaie baliorik aitortzen, eta lan-eskubideen inolako bermarik gabe egiten ditugu. Hala ere, horrek ez du esan nahi lan-eskubiderik ez dugunik!

Bereziki aipatu nahi ditugu soldatapean baina kontraturik gabe egiten ditugun zaintza-lanak. Asko gara kontraturik gabe haurrak edota nagusiak zaintzen ditugun gazteak, garbiketa lanetan gabiltzanak... nagusiki emakumeak eta bereziki emakume migranteak. Azken hauek gainera muturreko bazterketa egoera aurkitzen dira, eta nahiz eta ikasketa kualifikatuak izan, beltzean zaintza-lanak egitea dute bizibidea ateratzeko modu bakarra, pairatzen duten diskriminazioaren ondorioz.

Honek sistema kapitalista heteropatriarkalarentzat zaintza-lanak duten bigarren mailako papera ageriko uzten du, merkatuari eta produkzioari azpiratuak, baliorik aitortzen ez zaienak, eta baztertuko emakumen eta migranteen denbora baliatuz egoten direnak. Ere honen merkantilizazioan arreta jartzea beharrezkoa da; izan ere emakumeon enplegurako sarbideaz hitz egiten denean, zaintza lanak sarritan beste emakumen pobretu eta baztertuago batzuen gain uzten direla presente izan behar dugu, gehienetan beltzean, hauen esplotazioan sakonduz.

2.5 SHARING ECONOMY ETA PREKARIETATE FORMA BERRIAK

Azken urteetan gero eta gehiago hedatu da ekonomia kolaboratiboa edo sharing economy delakoa, baita Euskal Herrian ere (bereziki hiriguneetan), eta beraz, nahiz eta datu eskuragarriak ez izan, ezin aipatu gabe utzi. Jarduera ekonomiko hauek bere horretan aztertzen dituzten iturri eskasak direla eta esparru honetako langileak egindako adierazpen publiko ezberdinak hartu ditugu abiapuntutzat.

Uber, Deliveroo edo Glovo bezalako enpresen izenari loturik ezagun bilakatu den (baina askoz hedatuago dagoen) lan-eredu honen filosofia honela deskribatzen dute sustatzaileek: "Enpresaren langilea baino, kolaboratzailea zara. Eskuratu diru-sarrera gehigarriak, izan zure jefe propioa eta erabaki zure ordutegiak.". Deliveroo-ko enpresaburu batek honeta esan zuen elkarrizketa batean: "Zerbitzuak emateko kontratu bat da, ez dago lan egutegi ezta ordutegirik ere, banatzaileak nahi dutenean eta nahi duten tokitik konektatzen dira.". Aurpegi atseginez saldu nahi digute muturreko lan-eredu prekario hau, lana ez balitz bezala, baina ez dugu gezur hori sinisten.

Enpresa mota hauetan langile bakoitzak ordaindu behar du lanerako beharrezko bitartekoak (banatzaileen kasuan motorra edo bizikleta, tour turistikoaren kasuan

beharrezko baimenak... enpresaren uniformeak eta materiala ere fidantzapean eskuratzen dira), baita bitarteko hauen matxuren ordainketa ere; Gainera oporrak langileak ordaintzen ditu, eta ez dago gaixotasun-bajarik. Langile bakoitzak bere kotizazioak ordaintzen ditu autonomo bezala alta ematera behartuta egonik, argi eta garbi menpeko langile izan arren. Izan ere, eskariak enpresak kudeatzen ditu, eta enpresek langileek lana planifikatu ahal dutela esaten badute ere, demanda orduetan lan egitera behartuta daude langileak, markaturiko ordutegi eta prezioen menpe, baldin eta diru-sarrerak eskuratu nahi badituzte.

Enpresa mota honetako langileak "autonomo faltsuak" direla agerikoa da, kolaborazio harremanetatik urrun menpekotasun egoerak garatzen direlarik enpresarekin. Lan-harreman forma honen bidez, enpresek hitzarmen kolektiboen arabera soldatak ekiditen dituzte, baita kotizazioa ere, kaleratzeen indemnitazioa eta oporrak ordaintzea. Horrela, enpresaren mozkinak handiagoak dira.

Ekonomiakolaboratiboderitzonhonetarajotzendutengehienekbeharekonomikoengatik egiten dute, sarritan bestelako lan edo enpleguen osagarri bezala, baina bada bertatik diru-sarreraren zati handiena eskuratzen duenik. Orokorrean, enpresa hauetan aritzen diren langile gehienak gazteak dira. Honek, enpresek marketing estrategia bezala erabiltzen duten hobbyaren ideia guztiz baliogabetzen du.

Lan hauen marketing kanpainetan erabilitako ideiek gudan dituzten eragin subjektiboak ere aintzat hartzekoak dira. Prekarietatea eta lan-baldintza negargarriak hautu bat balira bezala irudikatzen dituzte, lana ez balira bezala, horrela baldintza horien aurkako erresistentziak ahultzeko helburuarekin. Honek, prekarietatearen orokortzerako eta errotzerako baldintzak prestatzen ditu, alienazioan are gehiago sakonduz, esplotazioa areagotzeko oztopoak ezabatzeko. Orokorrean, horrelako lan-harreman prekarioek langileok erabat atomizatzen gaituzte, elkarren arteko inolako harremanik gabe ia, elkarrena rteko lehia sustatuz. Sharing economya honen muturreko adierazlea da. Honek langileon antolakuntzarako zailtasunak dakartza lan baldintza prekarioei aurre egiteko, nahiz eta hainbat kasutan borrokaldi ezberdinak loratzen hasi diren.

Azkenik, aipatu nahiko genuke lan-harreman forma hauek are agerikoagoa egiten duten lan-harremanen paradoxa: lan-baldintzen prekarizazioaren bidez langile klaseko sektore batzuentzat hainbat zerbitzu eskuragarriago bilakatzen omen direla diote, baina langile klasearen bizi- eta lan- baldintzen okertzearen kontura egiten ari da hau, bereziki langile klaseko sektore pobretu eta baztertuenen kontura.


2.6 HEZKUNTZA ETA LAN MERKATUA

Atal honetan hezkuntzak lan-merkaturako sarreraren eta lan-baldintzetan duten eragina aztertuko dugu, modu xume baten. Honek, ez du esan nahi hezkuntza sistema osoak sistema kapitalista heteropatriarkalaren baitan erreproduzio funtzio oso bat betetzen duela, eta hau aztertu behar ez denik, honek lan-merkatuarekin duen harreman estua

barne, hezkuntza sistema merkatuaren mesedetara diseinaturik dagoelarik. Baina horren azterketa ez da lan honen xedea.

Gure burmuinetan iltzatuta dauden bi ideia dira “ongien formaturiko belaundaldia garela” eta “burmuinen ihesarena”. Egia da Euskal Herrian goi-mailako ikasketadun gazte kopurua oso altua dela: 2015ean 30 eta 34 urte arteko gazteen %54,4ak goi-mailako ikasketak zituen (unibertsitate ikasketak edo goi-mailako heziketa zilkoak) Euskal Herrian, joera gorakorra izan delarik; 20 eta 24 urte arteko gazteen kasuan %84,7 goi-mailako ikasketak burutzen ari zen.

Ikasketen luzatze honek azaldu dezake adin tarte horretako jarduera-tasa baxua, nahiz eta ikusi dugun bezala horrek ez duen esan nahi lan egiten ez dugunik. Hala ere, sarritan lan hauek beltzean egiten ditugunez, ikasten eta lanean ari garen gazteoi buruzko datuak eskuratzea oso zaila da.



Orokorrean esan daiteke goi-mailako ikasketak edukitzeak erraztu egiten duela lan-merkatuarentzat Euskal Herrian. Izan ere, 2007tik 2013ra goi-mailako ikasketak dituzten enplegudunen tasa nahiko egonkor mantendu da, nahiz eta 2011tik 2013ra joera berakorra erakutsi zuen. Hala ere, aipatu beharrekoa da europako bestelako lurraldeetan joera gorakorra izan dela, Euskal Herrian eta Espainiar estatuan ez bezala.

Hala ere, eta grafikoan ikus daitekeen bezala, bigarren mailako ikasketadun, eta bereziki, lehen mailako ikasketadun gazteak izan dira kolpatuenak, enplegudunen kopurua 8 puntu jaitsi delarik 2007tik 2013ra bigarrena mailako ikasketak dituztenen artean, eta 26 puntu lehen mailako ikasketak dituztenen artean. Honek, goi-mailako ikasketek Euskal Herrian lan-merkatuarentzat aukera hobeak ematen dituztela baieztatzen du. Hori dela eta, prekarietateari aurre egiteko estrategia bilakatu da ikasketena, horrela ikaslearen arteko lehiakortasuna sustatuz, bereziki graduondoko bidezko espezializazio bidez. Hezkuntzaren merkantilizazio prozesu baten erdian aurkitzen garela kontuan izanik, honek berriro ere langile klasea eta herri sektore pobretuenak baztertuko gaitu.

2.6.1 PRAKTIKA KONTRATUAK ETA FORMAZIO KONTRATUAK

Lan-kontratu hauek bereziki gazteoi zuzenduta daude, eta teorikoki asmoa lanbide prestakuntza burutzeko aukera ematea da. Kontratu hauen ezaugarri nagusia prekarietatea da, enpresarien interes nagusia lanpostuak kostu txikian betetzea izaten delarik. Datu zehatzak ez ditugun arren, enplegu politika publikoetatik jasotako bultzadak kontratazio mota honen hazkundera eragin du.

- **Prestakuntza eta formakuntza kontratuak**

Kontratu hauek 16 eta 25 urte arteko gazteoi zuzenduta daude, nahiz eta 30 urtera arteko gazteak kontratatu daitezkeen espainiar estatuko langabezia tasa %15 baino handiagoa den bitartean. Kontratazio mota hau izateko baldintza da lanbide-kualifikaziorik ez izatea.

Kontratu hauek ezin dira lan-aldi partzialekoak izan, eta jasotako formazioa enpresaren kontu izan behar da. Horretarako kontratuaren lehen urtean lanaldi efektiboa ezin da %75 baino handiagoa izan, eta bigarren urtean %85 baino handiagoa, gainontzeko denbora formaziora bideratu behar delarik. Horrela kontratuen iraupena gutxienez urte batekoa izan behar da, eta gehienez hiru urtekoa. Hala ere posible da honako kontratuak berriz egin daitezke lanpostuak formazio berria behar duela argudiatuta; honek gazteontzako prekarietatea luzatzea dakar, enpresarien mesedetan. Izan ere, kontratu mota hau daukagun gazteon ez dugu kotizatzen enpresari egiten zaizkion deskontuen ondorioz, eta kontratu hauen kateaketaren bidez, enpresek langileak ordezkatzeko aukera dute baldintza are prekarioagoetan.

Soldatari dagokionez, kontuan izatekoa da ezin dela Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoa izan. Hala ere, lanaldi efektiboari proportzionala denez, zuzenean LGS baino txikiagoa izatea dakar sarritan.

- **Praktika kontratuak**

Kontratu hauek unibertsitate ikasketan edo eri- zein goi- mailako titulazioa dugun gazteoi zuzenduta dago, ikasketak amaitu eta 5 urteko epera arte egin daitezkeelarik. Kasu honetan lanaldi osokoa zein partzialekoa izan daiteke kontratua eta xedea kasu honetan ere langileon formazioa litzateke. Baina kasu honetan ere prekarietatean murgiltzen gaitu.

Kontratuaren iraupena 6 hilabetetatik bi urtera artekoa izan daiteke. Denbora honetan, soldata lanpostuarentzako finkatutako soldataren %60 gutxiago izatera heldu daiteke lehen urtean, bigarren urtean aldiz %75 gutxiago izatera.

Kontratu hauek egin ahal izateko baldintza bi urte baino gehiagoz kontratatua egon ez izatea eskatzen da, profesionaltasun ziurtagiri beragatik nahiz eta enpresa ezberdinetan

izan, ezta enpresa berean nahiz eta profesionaltasun agiri ezberdinengatik izan. Baldintza honek eragin dezake praktika kontratuak kateatzea lanpostuak soldata baxuagoak ordainduz bete ahal izateko enpresariak, berriro ere, gazteon prekarietatean sakonduz.

2.7 ENPLEGU PLAN PUBLIKOAK

Egun soldatapeko lanak gure bizitzen mantenuan eta bizi-proiektuaren garapenean duen pisu handia da. Instituzioei exijitu behar zaie herritarron eta langileon eskubideen bermen izan daitezen, eta beraz, onartezina da gazteon prekarietatean sakontzen duten planak sustatzea. Hitz politez jositako enplegu planak egiten diren arren, orokorrean norabide horretan doazelako enplegu planak, gazte prekarietatean sakontzea.

Instituzioetatik eskaintzen diren enplegu planak inposatzen diguten eredu kapitalista neoliberal ezkutatzeko maskarak dira, finean enpresariak laguntzeko xede dutenak, langile klaseari eta bereziki gazteoi iruzur eginez. Gazteon langabezi tasa altuak direla eta, “galdutako belaunaldi bat” izan ez gaitezen enplegua edozein baldintzatan sortzeko planak dira enplegu planak, langabezia langa txikiagoa izan dadin.

Kalitatezko soldatapeko lanak sustatu ordez, praktika kontratu prekarioak sustatzera bideratzen dira diru-partidak, gainera, ondoren lana egonkortzeko inolako neurriekin lotu gabe. Kontratazio mota hauek prekarietatean eta sakontzeko eta enpresariak diru publikoz poltsikoak betetzea ahalbidetzen dute. Praktika kontratuak hitzarmenez adostutako mozkinak dute enpresentzat, eta gainera, aparteko partidak bideratzen dira enpresariak gazteak kontratatu ditzaten sustatzeko; bitartean, gazteon baldintza prekarioei ez zaie inongo arretarik eskaintzen.

Gazteok atzerrira prekarietatean bizitzera bideratzen gaituzten programak ere ez dute gazteon egoera konpontzen, kanpora goazenean prekarietatearen motxila gurekin daramagularako, baina Euskal Herrian ditugun ehun komunitarioen babesik gabe. Honek, bertako estatistikak hobetzeko balio badu ere, gazteon egoera errealean ez du hobekuntzarik suposatzen.

Gazte ekintzailtzarako planekin ere zorrotzak izatea dagokigu. Sistemak egiten duen ekintzailtzaren promozioaren bidez bizi-proiektuaren garapenerako ezintasuna gazteon inizatiban enfokatzen da, horrela beraz baldintza materialetatik deslotu asmoz. Honek ideologia burgesaren hedapenerako baldintzak ezartzen ditu, izan ere, mundu enpresarialean iraun ahal izateko, enpresari batek bezala pentsatu eta ekitera bultzatzen gaituzte, lehiakortasunaren eta bikaintasunaren bilaketa indibidualean.

Gazte ekintzailtzarako diru-laguntzak errenta baxuenak ditugun eta prekarietatean murgilduta gauden gazteontzat izan behar dira eskuragarriak eta zuzenduak bereziki, baldintzak horretarako doitu beharko liratezkelarik. Gainera, proiektu hauen garapen eta arrakasta epe luzeagokoa izanik lehen bizpahiru urteetarako diru laguntzak ez dira nahikoa. Gainera, diru-laguntzako jasotzen dituen ekintzailtza mota orok ekintzailtza

burujabea bultzatu beharko luke, diru-publikoz lagundua den heinean. Proiektu hauek tokian toki sustraituak egoten dira, interes komunitarioei erantzunez eta produkzio bitartekoen jabetza kolektiboan oinarrituz.

2.8 PREKARIETATEAREN ONDORIOAK ETA POBREZIA

Esan bezala, gazteon lan-baldintza prekarioek gure bizi-proiektua erabat baldintzatzen dute, egun, honen garapenerako ezintasun agerikoak ditugularik. Hau, arazo indibiduala izatetik harago, gizarte osoaren arazo bat da, izan ere, Euskal Herriak iraungo badu, bertan bizitzeko aukerak egon badaudelako izango da, ez bestela.

2.8.1 GAZTEON POBREZIA

Lan-baldintza prekarioen zuzenean baldintzatzen dituzte gazteon diru-sarrerak, eta hauek egun asko baldintzatzen dute gazteon bizi-proiektua.

AROE indikadorearen arabera 2016 urtean pobrezia edota bazterketa sozial egoeran zeunde biztanleriaren %22,9 EAEn eta %18,1 Nafarroan. Gazte mailako adierazle konkreturik ez badago ere, hainbat datu adierazgarriak dira. Pobrezioa erlatiboaren muga 2016 urtean 964€-koa zen EAEn eta 917€-koa Nafarroan. Kontuan izanik Hego Euskal Herrian 25 urtetik beherako gazteon hileko batz besteko soldata 895€-koa dela (soldaten atalean adierazitako matiz guztiekin) soldatadun gazteon asko pobrezia mugatik behera aurkitzen gara. Zer esanik ez, langabezian edota ezkutuko lanetan gabiltzan gazteok.

2.8.2 ETXEBIZITZA LUXU BILAKATZEN

Estimaten da etxebizitzaren kostua asumitzeko modukoa izateko ezin duela inondik inora diru-sarreren %30a gainditu. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, Hego Euskal Herrian gazteontzako etxebizitza eskuratzea oso zaila da dauzkagun soldatekin. Taulan 2017ko bigarren hiruhilekoko datuak jasotzen dira, hain zuzen ere soldatadun gazteon soldata netoaren zein ehuneko suposatzen digun erregimen libreko etxebizitza baterako sarbideak (Iturriak Gazteen Euskal Behatokia eta CJE-ren Observatorio de Emancipacion dira). Hala ere, kontuan izan behar dugu, etxebizitzaren kostuaz harago, diru-sarrera egonkorrik ez izateak, eta aurrezteko ezintasunak ere baldintzatzen gaituztela, bereziki etxebizitza erosteko kasuan, nahiz eta printzipioz eskuragarriagoa ematen duen, hori ez delako horrela faktore hauek aintzat hartuta.

Etxebizitza publikoen parkeak duen pisu espezifiko txikiak, etxebizitza bila merkatu libreran jotzera behartzen gaitu gazteok baina gure prekariedade egoerak oso zaila bihurtzen du etxebizitzaren eskuratzea.


		16-29 URTE ARTEKOAK	30-34 URTE ARTEKOAK
NAFARROA	ALOKAIRUA	%62,6	%44,6
	EROSTEA	%49,8	%35,5
EAE	ALOKAIRUA	%78,2	%57,7
	EROSTEA	%82,3	%60,7

2.8.3 GAZTE MIGRAZIOA AZTERTUZ

Gazteon migrazioa aztertu beharreko fenomeno bat da, izan ere, gazterik gabe herri batek ez du etorkizunik. Horrela, zahartze demografikoaz hitz egiten denean, jaiotze-tasari arreta jartzen zaion bezala gazte emigrazioari ere erreparatu beharko litzaioke. Euskal Herria bizi-proiektu bat garatzeko ezintasunaren ondorioz asko gara begirada atzerrira bideratzen dugun gazteak. 2008 eta 2016 urteen artean 88.343 gaztek egin zuten alde Euskal Herritik, horietatik %70ak 25 eta 34 artean zituelarik.

Datuari erreparatzen badiegu adierazgarria da Hego Euskal Herritik kanpo migratu duten gazteen %86,6ak ez duela "nazionalitate espainola". Honek eskolak eta hezkuntza sistemak jokatzeko duen gizarte kohesiorako papera zalantzan jartzera garamatza. Orokorrean pertsona inmigranteak goi-mailako heziketara sarbide txikiena dugu, eta datu hauek hezkuntza-mailaren arabera enplegu tasarekin gurutzatzen baditugu, pertsona hauek alde egin behar izatearen arrazoietako bat aurkituko dugu. Hona bizi-proiektu baten bila datozen gazteetako askok ez dute Euskal Herrian horretarako betarik aurkitzen, eta beraz, emigratzea da duten aukera bakarra.

"Nazionalitate espainola"⁴ izanik Euskal Herritik eta estatu espainoletik kanpora migratzen duen gazte kopurua txikiagoa da. Hala ere, azken urteetan goranko joera mantendu duela ikus daiteke (2015-2016 tartean behera egin zuen arren, datuak eskuratu ditugun azken urtea), beraz arreta jarri behar zaion fenomeno da.



Prekariatetik ihesi atzerrira joateak ez du esan nahi prekarietate gehiago aurkituko ez dugunik, izan ere, atzerrian aurkituko ditugun lan baldintzak gurearen antzekoak izan daitezke kasu askotan. Gainera, jatorrizko erroldan baja emateak honako ondorioak izan ditzake:

- Langabezia dirusaria jasotzeko eskubidea galtzea.
- Emergentsia diru-laguntzak, RGIa esaterako, jasotzeko eskubidea galtzea.
- Bozkatzeko aukera galtzea.
- Errolda galtzearen ondorioz etxebizitza publikoen zerrendan apuntatzeko ezintasuna.

3. GAZTE PREKARIETATEAREN AURKA BORROKAN

Datozen urteetan Euska Herrian pobreziaren eta bizi-prekarietatearen epidemia are gehiago zabalduko da, beraz, ezinbestekoa da sakoneko eraldaketa honi buruz hausnartzea eta duen dimentsio estrategikoaz jabetzea, hain zuzen ere, iragankorra eta ausazkoa izateaz harago, prekarizazioa delako inposatu nahi diguten sistema kapitalistaren berregokitzapenaren oinarrietako bat.

Prekarietatea gure bizi-proiektuen ezaugarri bezala naturalizatu eta kronifikatu nahi dute, prekarietatea inposatu nahi digute. Horretarako, eskubide sozialak merkantilizatzearekin batera, gazteon lan-baldintzen prekarizazioa “punta de lanza” bilakatu dute. Enplegurako sarbidea atzeratuz eta zailduz, lanaldi partzialeko enpleguak pilatzera behartuz, praktika kontratuak edo aldi baterakoak pilatzera, beltzean edota aitortzarik gabe lan egitera behartuz...

Gure bizi-proiektuen erakuntza “norbanakoaren autosufizientziaren” eta “sakrifizioaren” ideia indibidualisten pean eta soldatapeko lanaren buelta eraikitzen bultzatu gaituzte, etorkizun “hobe” bat izateko espektatibak eraikiz, gazteon orainari ahalik eta zuku gehien ateratzeko. Gero eta argiago dago aspirazio horiek ez direla beteko, are gehiago, eskubide sozial eta laboralik gabeko belaundaldia izateko bidean goaz. Sistemak inposaturiko ideari horrek lan-baldintzen eta bizitzaren prekarizazioa orain “asumitzeko” baldintza subjektiboak ezartzen ditu.

Horren aurrean kontzientzia hartzea dagokigu. Izan ere, gazteok prekarizazioari aurreko egiteko moduak, baloreak eta estrategiek, besteak beste, etorkizuneko jendarte ereduan eragin handia izango dute. Gazte prekarietateari buruzko ikuspegi parternalisten aurrean, lagundu beharreko norbanako bezla ikusten gaituena, kontzientzia-hartze eta ekite kolektiboarako bideak pentsatzea dagokigu.

Prekarietatearekin eta esplotazioarekin amaitzeko erroko aldaketa bat beharrezkoa

da, kapitalismoa suntsitzea, eta Euskal Estatu sozialista eta feminista eraikitzea. Horretarako, gaurdanik zer egin behar dugun aztertzea dagokigu. Lanak orokorrean, eta soldatapeko lanak bereziki, egungo gazteon bizi-proiektuen eraikuntzan garrantzi oso handia dauka eta lan-baldintzen prekarizazioa lehen mailako kezka eta arazo da gazteontzat. Gainera, kapitalaren eta langileen arteko lehia zuzenean ematen den eremu bat izanik, ezinbestekoa zaigu eremu honetan antolatzea eta estrategia eraginkorrak diseinatzea. Plano ezberdinetan jardutea ezinbestekoa da:

- Lanaren problematikari ezin zaio aurre egin berau sortu duen logikarekin pentsatuz. Lanaren kontzeptualizazioa soldatapeko lanetik harago ulertu behar dugu, eta kontzientzia kritikoa garatu egun lanak jokatzen duen paperari dagokionez. Honetarako, **borroka ideologikoa** ezinbestekoa izango da.

- Lanaren ulerkera eta praktika berriak garatu behar ditugu, **alternatibak eraiki**. Lana gure bizitzak sostengatzeko jarduera multzo gisa ulertuz, baita sozialki beharrezkoa diren ondasunen eta zerbitzuen produkzioari dagokionean ere, hauek beste modu batzuetan pentsatzeko, antolatzeko eta gauzatzera bidean lan egin behar dugu. Gure ekimenez proiektuak martxan jartzea dagokigu, inoren zain egon gabe burujabetza martxan jarriz kolektiboki gure bizi-proiektuak bestela antolatzeko.

- **Langile borrokan sakontzea** dagokigu, kontraboterearen eraikuntzan. Kapitalaren ofentsibarn aurrean, langileen lan-baldintzak eta lan eskubideak aldarrikatu, borrokatu, defensatu eta gauzatea dagokigu, ahalik eta gazte gehien borrokara batzeko espazioak irekiz. Horrela, prekarietatearen aurkako borrokan langile klasea osatzen dugun talde sozial ezberdinen arteko artikulazioan sakontzeko aukerak biderkatzen dira.

Kapitalismoak errentagarritasuna lortzeko zailtasunak dituen honetan aberastasunaren berbanaketak kapitalismoaren dinamika zuzenean interpelatzen du, errenta kuestionatzeaz harago, sistema bera kuestionatzeraino. Honek, aurretik aipaturiko lan ardatzekin batera, egundik iraultzarako baldintzak sortzeko aukerak zabaltzen ditu.

Txosten honetan hirugarren ardatz horri helduko diogu, jakitu izanik hiru ardatzen garapena ezinbestekoa dela kapitalismoa gainditzeko. Ikusi dugun bezala, gazteon lan-baldintzen prekarizazioak gazte kopuru oso handi bati eragiten digu, eta beraz, guzti hauek borrokara batzeko espazioak irekitzea lehentasunezkoa da. Kapitalari aurre egingo dion langile kontraboterern eraikuntza gazte mailan eta gazte mailatik egitea beharrezkoa da, gazteria klase borrokan parte aktibo bilakatu behar dugu.

Kapitala eta enpresariak euren klase interesak defendatzeko antolatuta daude, beraz gazteon klase interesak borrokatzeko antolatzeko beharra daukagu. Historikoki sindikatuok izan gara langile klasearen borrokan kontraboterea egituratzeari begira tresna nagusia, kapitalismoaren aurkako borrokan ezinbesteko tresna. Gazteok, arestian aipatu ditugun lan-baldintzak direla eta (lan-merkatura satu irtenak, ezegonkortasuna, errotazio handia, beldurrak, atomizazioa...) sarritan sindikatuak urrun sentitzen ditugu; era berean gure antzeko baldintzetan dauden gazteak ez ezagutzeak kolketiboki

borrokatzeko umezurtz sentizera eragiten digu. Honen aurrean tresna eta estrategia egokiak mahaigaineratzea dagokigu.

3.1 PREKARIETATEAREN AURKA, GAZTEON ARTEKO ELKARTASUN ETA ELKARLANGUNTZA SAREAK EHUNDUZ

Gazteon prekariedade egoera ezegonkorrak horri egokituriko antolakuntza eta mekanismoak behar ditu. Errotazio azkarrek eta atomizazioak lankideekin eta lanpostuaren bueltan antolatzeke zailtasunak nabariak dira, gure egoerara egokituriko antolaketa eta borroka espazioak behar beharrezkoak ditugu, lantokian modu iraunkorrean antolatzeke ditugun zailtasunen aurrean.

Parte hartzeke modu eta aukera ezberdinak aintzat hartzen dituzten tresna kolektiboak behar ditugu, malguak, baina konpromisoak batzeke aukera ematen dutenak, modu puntualetik (arazo edo mobilizaziok konkretuen bueltan) abiatuta modu iraunkoragoetara. Horretarako, lanpostuetaz gain, herri eta auzoetan errotutako antolakuntza espazioak behar ditugu, atomizazioaren aurreran eremu hauetan garatzea errazagoa den edo jada existitzen diren harremanak baliatuz, eta arazo beraren aurpegi ezberdinak izateak batzen gaituelarik.

Horretarako gure errealitate propioari erreparatu behar diogu. Txosten honetan argazki orokor bat jasotzen da, eta egia da herri eta eskualdeetako argazkiak eskuratzea oso zaila dela, baina gu gara egunero errealitate hori pairatzen dugunok, eta beraz guri dagokigu ekitea! Horretarako elkartzea eta antolatzea beharrezkoa da, eta abiapuntua txikitik egingo dugu, tokian toki saretzen joanez. Herri eta auzoetan dauzkagu gure konplizeak, gure lantokietan... batu gaitezen!

Tokian tokiko errealitatearen arabera, **gazte prekariedadearen aurkako mugimendu sendo eta zabalak ehundu** behar ditugu, gazteok prekariedadearen aurka kontzientziatu eta aktibatzeke, arazo indibidualak arazo kolektibo bilakatzeko, diskurtso eta molde propioz. Gutako bakoitzak bizi duen errealitatetik borroka kolektiboan ekarpenak egiteke aukerak zabaltzea dagokigu, klase elkartasuna tresna eraginkor bilakatzeko. Gazteon arteko elkartasun eta elkarlaguntza sareak ehuntzen eta saretzen hasteko hainbat esparru ditugu jorratzeke:

- **Prekariedadea aztertu.** Arazoaren dimentsioaz jabetzeke herri eta auzoetako gazteon lan-baldintzen argazkia osatzea beharrezkoa da: non egiten dugu lan? Zein baldintzatan? Nondik abiatuko dugu borroka? Prekariedadeaz hitz egiten hasi behar gara, prekariedadearen aurkako mugimendu bat pizteke. Prekariedadearen inguruko eztabaida sortu eta indartu behar dugu.

- **Gazte prekariedadea bistakoa egin. Mobilizazioa bultzatu.** Prekariedadearen milaka aurpegiak plazara atera eta kolektibizatu behar ditugu, kolektiboki borrokatzeke. Argazkia osatzeaz haratago arazo espezifikoak bistaratu eta salakaeta orokorrak

bideratzea, kontzientziatzeko. Gazteon arteko komunikazio eta aliantzak sortzeko bidea izatea bilatu behar dugu.

- **Babes-sareak antolatu.** Kasu zehatzen salaketak egiteko antolatu, edo aldarrikapen konkretuak borrokatzeko (herri edo eskualdeko lantoki baten edo lan mota baten neurri konkretuak esaterako). Elkarren artean adostutako bide eta moldeekin arazo kolektiboak erantzun kolektiboak eman, hauek sozializatuz indarrak batzeko. Modu indibidualean pairatzen duguna, kolektiboki borrokatu behar dugu. Babes-sare eraginkorrak izate aldera, autoantolakuntzaz gain, sindikatuekin aliantzak eraikitzea ere garrantzitsua izango da, eta gazte prekarioen sare edo taldeek zubi hauek eraikitzen lagundu dezakete.

3.2 GAZTE ETA LANGILE, ZUBIAK ERAIKIZ, ALIANTZETAN SAKONDUZ

Gazteon borrokarako tresna espezifikokoak garatzeaz gain, langile borrokarekin bat egin dezagun zubiak eraikitzea ezinbestekoa da. Langile klasearen osaera gero eta heterogeneoagoa delarik, talde sozial ezberdinek aldarrikapen propioak borrokatzeko bide propioak jorratzen ari dira (emakumeak, pentsionistak, enpresa ezberdinetako langileak...), baina ezinbestekoa da aliantzen bidez langile klasearen artikulaziorako bideak jorratzea.

Aliantza horien baitan langile borrokaren tresna nagusi den sindikalgintzara gazteak batzea beharrezkoa da: alde batetik, kapitalismoaren aurkako borroka luzea izango delako, eta beraz, gazte langileok egungo langile borrokaren lekukoa hartu beharko dugulako. Bestetik, sindikalgintza langile klasearen baldintzetara egokitzeko lanean aktibo izatea dagokigulako belaunaldi berrioi.

Aliantzak ehuntzeko norabidean kokatzen dugu LAB eta ernairen arteko aliantza ere. Aliantzaren batian bitarteko ezberdinak sortu ditugu (Aldarrikapen taula, gazteon lan eskubideen borroka gida...), baina tresnak baino elkarlana da helburua, zubiak eraikitzea eta dinamika ezberdinak abiaraztea gazte prekarietatearen aurka: Praktikak baldintza duinetan egiten ez diren enpresen zerrenda beltzak egin eta praktikak duintzearen aldeko borroka, aldarrikapen ezberdinak... finean, borrokarako aliantza bat, aurrez aipaturiko helburuak erdiestera bidean.

4. PREKARIETATEAREN AURKA, HAINBAT ALDARRIKAPEN

Gazteok gure egin behar dugu prekarietatearen eta esplotazioaren aurkako borroka, eta horretarako, gaurdanik hainbat aldarrikapen mahaigaineratu eta borrokatzea ezinbestekoa da. Lantegietatik hasi eta kaleetara gure eskubideak aldarrikatu, defendatu eta borrokatu behar ditugu, gaurdanik. Pobreziaren mehatxuaren bidez lan baldintza prekarioak inposatu nahi dizkigutenean aurrean, badira gaurdanik borrokatu daitezkeen neurriak. Aldarrikapen orokorretatik harago, aldarrikapen konkretuen bueltan kapitalaren boterea lehiatzea ezinbestekoa da.

Guzti hauek aldaketa txikiak baino ez dira, eta ikuspegi sakon batekin eta alternatibien eraikuntzarekin uztartu behar dira, helburuak baino, nahi dugun eredu berriari bide emateko aukerak zabaltzeko bitartekoak dira. Beraz, aldarrikatuzetik harago, eskubide hauen borroka eskuratzeko eta antolakuntzaz bermatzeko bidek ireki behar ditugu.

4.1 LAN DUINA GUZTIONTZAT

Lan guztien aitortza politiko eta ekonomikoa beharrezkoa da, horrela lanaren banaketa orekatua egin ahal izateko. Horretarako, soldatapeko lanari eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpenari loturiko lanei dagokionez, gutxiago egin behar dugu lan, denok lan egiteko aukera izan dezagun eta egun aitortu gabeko zaintza-lanak denon artean banatzeko aukera erreala egon dadin. Era berean zaintza-lanak sozialki duten balioa aitortzea eta eskubidek bermatzea ezinbestekoa da.

Horretarako enplegu politika eraginkorrak martxan jartzea beharrezkoa da. Kapitalismo neoliberalak bultzaturiko globalizazioaren aurrean tokiko garapenaren aldeko apustua egitea, tokiko beharizanetarako egokitutako formazioa eta soldatapeko lanaren sorrera.

Horretarako hainbat aldarrikapen jasotzen ditugu bertan, euretako asko Euskal Herriko eskubide sozialen kartan jasotzen direlarik.

- 35 orduko lanaldia.
- Lanaldi partzial inposaturik ez. Egun Hego Euskal Herriko gazteon %30 baino gehiago gaude lanaldi partzialak egiten, gehienak gogoz kontra.
- Aldi baterako kontratazioak mugatzea.
- Ordu estrarik ez. Lana eta ondasuna banatu.
- Errelebo kontratuak bultzatzeko neurriak ezarri.
- Malgutasun neurriei ez. Gure esplotazioa eta prekarietatea areagotzen dute.
- Lanbide arteko gutxieneko soldata 1200 euro.
- Lan berdina, soldata berdina. Soldata diskriminaziorik ez.
- Lan osasuna gure eskubide bat da, berma dezatela eskatzen dugu. Lanpostu batera sartzen garenean beharrezko segurtasun neurriak ezagutu ditzagun bermatu behar da, baita lanaldi laburrak egingo ditugunean ere.

- Euskara lan hitzkuntza izateko bermea aldarrikatzen dugu.

Horrekin batera, lan erreforma zein negoziazio kolektiboaren erreforma atzera eskatzen dugu.

4.1.1 BELTZEAN ETA AITORTZARIK GABE GABILTZAN GAZTEOK ERE ESKUBIDEAK DITUGU!

- **Kontraturik gabe lan egiten dugun gazteak**

Lan kontraturik sinatu ez badugu ere, horrek ez du esan nahi lan harremanik ez daukagunik. Are gehiago, idatzizko kontraturik ez dagoenean, legediak dio lan harremana mugagabe eta lanaldi osokotzat hartzen dela.

Idatzizko kontraturik izan ez arren hitzarmen kolektiboa eta lan arauak baldintza berdinetan aplikatzen dira. Beraz, kontraturik ez izateak ez du esan nahi eskubiderik ez ditugunik eta beraz hauek borrokatzea ere ezinbestekoa zaigu.

4.1.2 LANGABEZIA ETA POBREZIAREN HANDITZEARI ERANTZUTEKO PRESTAZIO SOZIALAK HANDITZEA

Bazterketa ekiditeko langabezian gauden gazteontzat prestazio duinak izan ditzagun beharrezkoa da. Horretarako prestazio sozialak arautzen dituzten legeak aldatzea beharrezkoa da, inor ez dadin pobrezia mugaren azpitik geratu.

Era berean, langabezia egoerak irauten duen bitartean langabezi subsidioa bermatzea exigitzen dugu, baita laguntzak jaso ahal izateko gurasoen etxetik kanpo erroldatuta gogera behartzen gaituzten baldintzak ezabatzea.

4.1.3 ENPLEGU POLITIKA PUBLIKOEI KRITIKA

Aurretik aipatu bezala, enplegu politika publikoak ezin dira langabezia-tasa edozein modutan murriztera bideratuta egon, ezta enpresarien poltsikoak diru publikoz betetzeko bidea ere. Hori dela eta ondorengoak aldarrikatzen ditugu:

- Enplegu planak epe luzerako plan estrategikoak izan behar dute, hainbat eremutan eragina dutenak (ogasuna, hezkuntza, berdintasuna...) eta eragile sozialekin batera diseinatuak, gazteok barne, herritarron mesedetarako planak izan daitezen.

- Enplegu planen helburua ezin da lanpostuak edozein preziotan sortzea. Kalitatezko soldatapeko lana sortzea izan behar da helburua, eta kapitalaren interesaren aurrean langileon eskubideen defentsarako bermeak eskaini behar ditu.

- Gazteok atzerrira prekarietatean bizitzera bideratzen gaituzten programak ez dira aterabidea. Kalitazteko lana Euskal Herrian sortzea izan behar da xedea. Atzerrira joateko diru laguntzak beharrezkoak dira, baina ez egoerare soluzio gisa.

4.2 PRAKTIKALDIAK ETA PRESTAKUNTZA KONTRATUAK

Praktikaldiak zein prestakuntza kontratuak gazteoi espezifikoki zuzendutakoak dira, zeintzuen asmoa teorikoki lanbide prestakuntza praktikoa eskaintzea den. Dena dela, hauen ezaugarri nagusia prekarietatea da, eta beraz, honi aurre egiteko neurriak hartzea ezinbestekoa da.

4.2.1 PRAKTIKALDIAK IKASTEKO

Ikasten ari garen bitartean egiten ditugun praktketan praktikaldiak ikasteko direla bermatzea exigitzen dugu, eta beraz:

- Lanpostuak ordezkatzeko praktkarik ez!
- Lanpostu ezberdinetan formazioa jaso behar dugu. Enpresak eta ikasketak zentroak honetarako bermek jarri behar dituzte.
- Formazioak ez digu gasturik suposatu behar. Jada ikasketak ordaintzen ditugu, eta beraz praktikaldietan jasotzen dugun formazioak ez digu gastu gehigarririk suposatu behar.
- Lantokietan praktketan gauden denboran gure eskubideak bermatzea:
 - Lan osasunerako segurtasun neurriak eta bermeak.
 - Euskaraz ikasteko eta praktikak egiteko eskubidea bermatzea.
 - Aukera berdintasuna bermatzea, generoaren araberako bereizkeriarik egin gabe.

4.2.2 PRESTAKUNTZA KONTRATUAK

Behin lan-merkatura sartzen garenean bi prestakuntza formatu daude, formakuntza kontratua eta praktika kontratua.

Prestakuntza kontratuak

Lan kualifikaziorik ez dugun gazteoi zuzenduta dauden prestakuntza kontratu hauek duintzea eskatzen dugu. Horretarako:

- Lan eskubide guztiak bermatzea exigitzen dugu.

- Formaziorako balio dutela bermatzea exigitzen dugu. Kontratu mota hauek ezin dira lanaldi partizalean egin, eta lan aldi efektiboa ezin da izan lanaldiaren %75 baino handiagoa lehen urtean eta %85etik gorakoa bigarren urtean (gehienez 3 urte iraun dezakete). Gainontzeko denbora prestakuntza zuzentzen dela bermatzea eskatzen dugu, eta hori enpresaren kontura egiten dela.

- Lan berdinatik soldata berdina eskatzen dugu.

- Egiten dugun lanarengatik kotizatzea.

- Prestakuntza kontratuen kateaketa ekiditea. Kontratu horiek behin betiko lan kontratu bihurtzea bultzatu.

Praktika kontratuak

Praktika kontratuak ezabatzea eskatzen dugu. Izan ere kontratu hauek lan-esku kualifikatua eskatzen duten lanpostuak betetzeko (unibertsitate ikasketak edo erdi-zein goi-mailako heziketa zikloak egin diutugn gazteoi zuzendutakoak dira) erabili ohi dira soldata baxuagoak ordainduz, eta ez lanpostu horretan trebatzeko.

Hala ere, eta praktika kontratuak dauden bitartean:

- Lan eskubide guztiak bermatzea exigitzen dugu.

- Formaziorako balio dutela bermatzeko neurriak hartzea eskatzen dugu.

- Lan berdinatik, soldata berdina eskatzen dugu.

- Praktika kontratuen kateaketa ekiditea. Kontratu horiek behin betiko lan kontratu bihurtzea bultzatu.

4.3 BEHARTURIKO EMIGRAZIORIK EZ!

Gazteok gure etorkizuna garatu ahal izateko Euskal Herria uztera kondenatzen gaituzte. Honi aurre egitea beharrezkoa da, biztanleriaren zahartze demografikoari aurre egiteko. Horretarako, gazteen lan merkaturatzea ahalbideratuko duen enplegu politika garatzea beharrezkoa da.

Era berean kanpora enplegu bila joandako gazteen itzultze politikak martxan jartzea beharrezkoa da, eta horretarako atzerrian dauden gazteak saretzeaz gain:

- Atzerrian lan egin dena itzultzerakoan kotizatutzat hartzea.

- Dirulaguntzako jasotzeko sortzen diren oztopoak ezabatzea.

4.4 ESKUBIDE SOZIALAK BERMATU

Esplotazioaren aurkako borrokan, patronalaren aurrean eskubideak izango ditugula bermatzen duen babes sistema bat garatzea beharrezkoa da. Prekarietatea dominazio sistema bat da, eta gure bizitzak kapitalaren erabateko menpekotasunean kokatzen ditu. Horren aurrean, babes sistema propioa, publikoa eta nahikoa behar dugu, babes sistema diseinatzeko, antolatzeko eta eraikitzeko gaitasuna eskuratzeko borroka funtsezko borroka delarik.

Sistema kapitalistan, eskubide guztien jabe izateko pasa beharreko peajea da soldatapeko lana. Zentzu horretan, gazteon egoera prekarioa dela-eta, sarri eskubide sozial eta ekonomikorik gabe geratzeko arriskuan izaten gara diru laguntzak eskatzerako orduan edo etxebizitza batean sartu nahi dugunean programa publikoen bidez. Ezinbestekoa da gazteok eskubide osoko pertsona gisa hartzea prekarietate egoerari aurre egingo bazaio, eta horretarako hainbat neurri hartzea beharrezkoa da, eskubideak deslaboralizatzeko norabidean lan egitearekin batera.

- Eskubide sozialen bermerako dirua bideratzea. Dirua egon badago, arazoa politikoa da.
- Eskubide sozialen bermerako sistema publikoa ezartzea, diru-laguntzak eskatzeko eskubide guztien bermea eta baldintzen flexibilizazioa gazteriaren egungo egoerari egokituta.
- Pobreziaren muga kalkulatu komunitate osoaren aberastasunaren arabera eta Soldata Minimoa eta prestazio sozialak horren arabera zehaztu.
- Oinarrizko errenta bermatzea. RGIa pobreziaren mugakoa izatea gutxienez.

4.5 HEMEN LAN EGIN, HEMEN ERABAKI

Euskal Herrian lan egiten badugu, Euskal Herriko eragileok gara gure lanari buruzko legedia diseinatu, erabaki eta garatu behar dugunok. Lan harremanetarako euskal esparrua eremu sozio-ekonomikoan erabakitzeke eskubidea gauzatzeko bitartekoa da.

Egun espainiar eta frantziar estatuak dira lanari buruzko legediaren gaineko eskumentak dituztenak, eta beraz, lan-harremanen egungo esparrua Euskal Herriko errealitate sindikal, sozial eta politikoa kontuan hartu gabe diseinatzen da. Lan Harremanen eta Babes Sozialaren Euskal Esparrurik ez izateak inposizioen aurrean defentsa tresnarik gabe uzten gaitu euskal langileok.

Lan Harremanen eta Babes Sozialaren Euskal Esparruaren bidez hemen erabaki nahi dugu zer nolako eredu izan nahi dugun alor sozio-laboralean: lan-harremanei dagokionez, enpleguari buruzko politikak, prestakuntza, gutxieneko soldata, lanaldia,

langabezia prestazioak... Gaur egun, aldarrikapen hau euskal gehiengo sindikalak konpartitzen du. Euskal Herrian bizi eta lan egiten dugunok, bertan erabaki behar dugu gure lan-harremanen eta gizarte babesaren sistemari buruz. Euskal Herrian, badago aukerarik!

Borroka honetan parte hartzea funtsezko borroka da belaundaldi gazteontzat. Gure eskubideak borrokatuz, gure etorkizunaren jabe izateko tresnak eskuratu behar ditugu, kapitalismoa suntsitu eta langileen interesei erantzungo dion eredu eraikitzeko.

Borrokaz lortuko dugu. Gazte langileok oraina borrokatuz esplotaziorik gabeko Euskal Herria eraikitzen goaz!

